# JESUS JAYO-BERRIARI.

*Soñu ederrak joaz*
*Bidian astera*
*Belen-aldera goaz*
*Jesus ikustera.*

Oskarbi dagoala
Izarren argian
Artzai batzuek dira
Ageri mendian,
Gas̄oak erne daude
Ardura andiyan
Aingeru bat juan zaye
Gabaren erdian.
*Soñu ederrak joaz...*

—

«¡Poztu artzaiak poztu!
—Aingeruak diyo—
Belengo estalpian
Dala Jesus jayo,
Mendietan barruna
Oju ta lekayo
Joanik adoraziyo
Eman bear zayo»
*Soñu ederrak joaz...*

—

Aurcho jayo-berria
Or larru-gorriyan
Aingeruak kantari
Dauzkatzu aurrian.
*«Gloria Jainkoari*
*Zeru ederrian*
*Borondate on-dunai*
*Pakea lurrian.»*
*Soñu ederra joaz...*

Orra nola dituan
Jesusen jayotzak
Biziro alegratu
Artzayen biotzak;
Dijoaz galtzar-pean
Arturik bildotsak
Belengo estalpera
Geyegizko pozak.
*Soñu ederrak joaz....*

—

Estalpeko idi ta
Astoaren aska
Orra biurturikan
Jesusen siaska,
Lasto batzuek berriz
Kolchoetzat dauzka
Andikan guzioi
Dagokigu otska.
*Soñu ederrak joaz...*

—

Aur gas̄oa sufritzen
Dago dar... dar... otzak
Alkar joaz oñ-esku
Papar ta okotzak,
Ala ere gu gatik
Irri-parrez pozak,
Beregandu nai dizku
Guzion biotzak.
*Soñu ederrak joaz....*

PEDRO MIGUEL DE URRUZUNO.

Mendaron 1882-ko Abenduaren 16.an